



Arartekoaren 2013ko azaroaren 26ko ebazpena. Horren bidez bukatu du 2279/2013/20 zenbakiko kexa-espeditari buruzko jarduera

Aurrekariak

Erakunde honetan irakaskuntza-ordezkapenerako izangaien kexa ugari jaso dira, zeren izangaiak gaindituta izan arren lehen-hezkuntzako ikasleei zuzendutako espezializazio-ikastaro bat, lehengo Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak homologatuta zegoena, ez baitiete utzi eskabidea aurkezten pedagogia terapeutikoko espezialitaterako eta atzerriko hizkuntza-ingelesarako 2013ko apirilean iragarri zen urteroko birbaremazio-prozesuan.

Kexak izapideetara onarturik, erakunde honek laguntza eskatu zien oraingo Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko arduradunei.

Gure eskaerari erantzunez, Pertsonalaren Kudeaketako zuzendariak azalpen-txosten bat helarazi digu. Gogoeten atalean xehetasunez aztertuko badugu ere, txostenak, laburbilduz, arrazoitzen du erabakia adieraziz onartu den izangaien zerrenda-kudeaketarako araudi berrian ez dela aurreikusten prestakuntza-jarduerak (ikastaroak) zerrendetan sartzeko gaikuntza gisa.

Txostenaren arabera: "Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak homologatutako espezializazio-ikastaro bat egin izanak ez dakar irakasleen ordezkapenak egiteko zerrenda jakin batera zuzenean sartzeari; aitzitik, zerrendak irekitzeko edo birbarematzeko prozeduren barruan sartu behar da zerrendetara, horretarako ezartzen diren epeetan eta ordezkapenak egiteko izangaien zerrendak kudeatzea erregulatzen duen araudian aurrikusitako baldintzetan..."

Gogoetak

1. Jakina denez, 895/1989 Errege Dekretuak, uztailaren 14koak, nabarmen aldatu zuen haur-hezkuntzako eta lehen hezkuntzako postuak hornitzeko era, irakasle espezialistaren figura sortuta.

Sistema berriak, irakaskuntzako beharrei hobeto erantzuteko asmoz, balio handiagoa eman zion bete gabeko postuetan beharrezkoa zen espezialitateari. Horren arabera, irakasle-postuetan aritzeko ezinbesteko eskakizuntzat ezarri zen Dekretuak 17. artikuluan aurreikusten zituen baldintzetako batzuk betetzea. (Pedagogia terapeutikoa eta ingelesa irakasteko postuen kasuan: dagokion ikastaroa gainditu izana Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak nahiz hezkuntzako eskumen osoa duten Autonomia Erkidegoek egindako deialdietan eta horren



ziurtagiria izatea; eskumena zuten erkidegoetako deialdien kasuan, gainera, ziurtagiriak Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren homologazioa behar zuten).

Sistema berria martxan jartzearekin batera, Hezkuntza-administrazioak beharrezkotzat jo zuen homologazio-prozedura bat arautzea unibertsitateek eta bestelako erakundeek antolatzen zituzten irakasleen prestakuntza-jarduerei begira, espezializazio- eta gaikuntza-ikastaroak egiten zituzten irakasleek dagokion espezialitateko lanpostuetara iristeko aukera izan zezaten. Horren adibide, 1998ko ekainaren 12ko Sailburu-aginduz Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako Sailak homologazio-prozedura bat zehaztu zen EAEko irakasle ez-unibertsitarioen prestakuntza-ikastaroetarako (uztailaren 24ko EHAA).

lido beretik, eta esperatzekoa zenez, irakasleak ordezkatzeko izangaien zerrendak kudeatzeko jarraibideek, orduko Pertsonalaren Kudeaketako zuzendariak 2004ko maiatzaren 26ko Ebazpenez onartuek, eskakizun berberak ezarri zituzten haur-hezkuntzako eta lehen hezkuntzako lanpostuen ordezkapenei begira, era horretan bete egiten baitzen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren Agindua, 1993ko urriaren 14koa, EAEko maisu-maistren gaikuntza eguneratzeko prozedura zehazten zuena (4.4 artikulua).

2. Lehen aldaketa horren ondoren, 2010eko urrian lekualdatze-lehiaketan araubidea aldatu zen estatu-mailan, urriaren 29ko 1364/2010 Errege Dekretuak estatuko lekualdatze-lehiaketak arautu baitzituen maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, Hezkuntzari buruzkoak, aurreikusten zituen irakaskuntzako funtzionarioen kidegoentzat.

Errege-dekretu horrek gaikuntza-sistema desagerrarazi zuen, eta haur-hezkuntzako eta lehen hezkuntzako lanpostuak hornitzeko, soilik ematen zien aukera kasuan kasuko espezialitateko irakasle funtzionario titularrei (10. artikulua).

Dena den, laugarren Xedapen Gehigarrian honako hau adierazten zen:

“El personal funcionario docente de carrera del Cuerpo de Maestros que haya superado los procedimientos selectivos de ingreso convocados por las distintas Administraciones educativas y sea titular de la correspondiente especialidad, o haya sido habilitado para la misma de acuerdo con la normativa anterior a la entrada en vigor del presente Real Decreto, podrá seguir participando en los concursos de traslado de ámbito estatal a plazas o puestos de su especialidad o a aquellas para las que haya sido habilitado.”

Bestalde, 1594/2011 Errege Dekretuak, azaroaren 4koak, Maisu-maistren kidegoko irakaskuntza-espezialitateak ezarri zituen.

Azken arau horrek bigarren xedapen iragankorrean hala ezarrita, urriaren 29ko 1364/2010 Errege Dekretua indarrean sartzean Dekretuak berak araututako espezialitateren batean gaitzeko baldintzak betetzen zituzten Maisu-maistren





Kidegoko funtzionarioek aparteko epe bat izango zuten espezialitate horretarako gaikuntza lortzeko. Epeak hiru hilabete iraun zuen, 2010eko urriaren 31n hasita. Aparteko denbora-tarte horretan espezialitateen gaikuntza lehenago indarrean izandako arauen arabera lor zitekeen; hau da, uztailaren 14ko 895/1989 Errege Dekretuan ezarritakoari helduz.

Horretaz gain, xedapenaren 3. puntuaren arabera, funtzionario bat egiten ari zen gaikuntza-ikastaro homologatu bat hasia bazen urriaren 29ko 1364/2010 Errege Dekretua indarrean sartu aurretik, zegokion espezialitatearen aitortza eska zezakeen ikastaroa gaindituz gero.

Era horretan aukerak ematen zitzaizkien Sailak homologatutako ikastaroren bat egin ondoren gaikuntzaren zain zeuden karrerako funtzionarioei, behin aitortza lortuta heldu ahal baitzioten urriaren 29ko 1364/2010 Errege Dekretuaren laugarren xedapen gehigarriari, eta horrela, parte hartu estatu mailako lekualdatze-lehiaketan.

Gainerakoan, ordea, Errege Dekretua onartuz geroztik espezialitateak ia soilik eskuratu ahalko ziren espezialitate berriak lortzeko prozesua gaindituz gero edo arauaren eranskinean jasotako espezialitatearen bat edukita.

Hala ere, eta aldaketak mamizkoak izan arren, EAEn ordezkapeneterako izangaien zerrendak kudeatzeko jarraibideak ez ziren aldatu harik eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 2010eko abuztuaren 27ko Sailburu-agindua argitaratu zuen arte, horren bidez araututa geratu baitzen nola kudeatuko zen aldi baterako ordezkapeneterako izangaien zerrenda EAeko unibertsitatez besteko ikastetxe publikoei zegokienez.

Horretaz gain, jarraibideetan zehazten zen, noski, zer koalifikazio egiaztatu beharko zen haur-hezkuntzako zein lehen hezkuntzako espezialitate bakoitzean jarduteko, eta, oro har, eskatutako tituluak arau honetan jasotakoak ziren: 1594/2011 Errege Dekretua, azaroaren 4koa, Maisu-maistren Kidegoko irakaskuntza-espezialitateei buruzkoa.

3. Kexa sustatu duten interesdunek 2010eko irailean hasi zuten beren prestakuntza, Hezkuntza Sailburuordetzak 2010eko martxoaren 20ko Ebazpenez homologatutako prestakuntza-jardueren bitartez (pedagogia terapeutikoan eta ingelesean espezializatzeko ikastaroa, haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta derrigorreko bigarren hezkuntzako maisu-maistrei eta irakasleei zuzendua).

2011ko martxoan, ikastaroa jada hasita, Hezkuntza-administrazioak argi adierazi zuen, zenbait interesdunek horretaz galdetuta, ez zela aldaketarik izango izangaien zerrenda kudeatzeko jarraibideetan. Erantzun horrekin, galdetzaleek pentsatu zuten aukerak izango zituztela ikastaroarekin prestatzen ari ziren espezialitateko zerrendan sartzeko.





Eta izan ere, orduko Pertsonalaren Kudeaketako zuzendariak honako hau zioen jakinarazpen idatzi bat bidali zuen:

“En lo que respecta al personal sustituto y a los requisitos de acceso a las listas de candidatos y candidatas a sustituciones en Educación infantil y Primaria, se mantienen las condiciones de acceso previstas en la resolución de 26 de mayo de 2004 de la Directora de Gestión de Personal (BOPV de 11 de junio).

Por tanto, conforme a lo dispuesto en la citada resolución, las personas candidatas podrán impartir las especialidades (tal y como hasta ahora se ha venido haciendo)...”

Interesdunek prestakuntza bukatu zutenean, gaikuntza aitortu zitzaizen 2012ko irailean. Izan ere, 2012ko irailaren 13ko Sailburu-aginduz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 2010-2012 bitartean Lehen Hezkuntzako irakasleentzat antolatu ziren lau espezializazio-ikastaro homologaturen ezaugarriak argitaratu zituen, eta horrekin batera, ikastaroen ondorioz gaitzat jotakoen zerrendak ere bai.

Izangaien zerrendak kudeatzeko jarraibide berriak 2012ko abuztuan onartu ziren, eta irailean argitaratu. Une hartan Sailak bazekien, beraz, bitarteko funtzionario askok gaindituta zeukatela espezializazio-ikastaro gisa antolatutako prestakuntza-jarduera, eta haien asmoa zela pedagogia terapeutikoko irakaskuntza-espezialitate berrian sartzeko eskaera aurkeztea. Hala ere, jarraibide berriak onartu zituenean Sailak ez zuen kasu hori kontuan hartu. Gauzak horrela, urteroko birbaremazio-prozesua ireki zenean, 2013ko apirilean, interesdun asko ezin izan ziren nahi zuten espezializaziorako zerrendan sartu, horretarako prestakuntza eginda zeukaten arren.

4. Ordezkapenentarako izangaien zerrenda kudeatzeko jarraibideak ez ziren aldatu 2012ko irailera arte, nahiz eta, ordurako, bestelako oinarrizko arauak egon bai estatu mailako lekualdatze-lehiaketak egiteko bai Maisu-maistren Kidegoko irakaskuntza-espezialitateei zegokienez ere. Horregatik egin izan dira ordezkapenak EAEn lehengo gaikuntza-ereduari jarraituz eta hasi dira beranduago eskatzen azaroaren 4ko 1594/2011 Errege Dekretuan aurreikusten ziren espezializazioak.

Gaiaren alderdi horri dagokionez, erakunde honen eskariz egindako txostenean Hezkuntza-administrazioak bere irizpideei eusten die kexagileen asmoaren aurrean, adieraziz bestelako espezialitateak aitortzeko ireki zen aldi baterako araubidea soilik dela aplikagarria karrerako funtzionarioentzat (azaroaren 4ko 1594/2011 Errege Dekretuaren bigarren xedapen iragankorra).

Hori egia bada ere, ohartu beharra dago, alabaina, ez zegoela arazorik jarraibide berrietan antzerako aukera bat aurreikus zedin, gaikuntzarako aldi baterako araubide bat eskainiz prestakuntza berria 2010-2012 bitarteko aldian eskuratu



zutenei, hau da, azaroaren 4ko 1594/2011 Errege Dekretuak bigarren xedapen iragankorraren 3. puntuan egin zuen gisan.

Hala egin balitz, aldi baterako araubideak konponbidea emango zien pertsona interesdun askori, prestakuntza-jarduera egin ondoren ordezeko gisa sartzea espero baitzuten beren espezialitateko lanpostuetan.

Sailaren txostenean adierazten denez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko 2010eko abuztuaren 27ko Sailburu-aginduak, irakasleen aldi baterako ordezkoen zerrenda kudeatzeko arauak onartu zituenak EAEko unibertsitatez besteko ikastetxe publikoentzat, ahalmena ematen zion Pertsonaleko Kudeaketako Zuzendaritzari ebazpen bitartez titulazio gehiago onartu edo lehendik zeudenak alda zitzan, baldin eta akatsen bat zela medio horren beharra bazegoen edo zegokion txostenaren ondorioz.

Erakunde honen iritziz, azaldutakoa konpentsazio egokia izan daiteke 2010-2012ko prestakuntza-jarduera homologatuetan aritu ziren bitarteko funtzionarioentzat, zilegiki uste baitzuten ordezkapen-zerrendako izangaiak izan ahalko zirela ikastaroen bitartez prestatzen ari ziren espezialitaterako.

Ondorioa

Azaroaren 4ko 1594/2011 Errege Dekretuak bigarren xedapen iragankorraren 3. puntuan ireki zuen bidetik joz, 2012ko abuztuaren ere, izangaien zerrendak kudeatzeko jarraibide berriak onartu zirenean, alegia, aldi baterako araubide bat aurreikusi beharko zen, 2010-2012 bitartean beren prestakuntza berritu zuten izangaiak haren bidez gaitu ahal zitezen.

Horrela jokatu ez zenez, orain Pertsonalaren Kudeaketako Zuzendaritzak 2012ko abuztuaren 27ko Aginduak azken xedapenetako bigarrenean ematen dion ahalmena baliatu beharko luke, eta behar diren aldaketak bultzatu, halako moldez non Agindua indarrean sartu aurrean hasitako ikastaro homologatuak nahikoa gaikuntza izan daitezen kasuan kasuko espezialitateetan aritzeko.

